Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2035

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 23koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Sopuertako (Bizkaia) «La Puente» edo Balparda dorrea, Balparda jauregia eta bertako lorategia biltzen dituen multzoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko Ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

«La Puente» edo Balparda dorrea kultura ondasun deklaratu zen, monumentu kategoriarekin, Kultura sailburuaren 2002ko urtarrilaren 14ko Aginduaren bitartez (otsailaren 5eko EHAA, 25 zk.).

Hala ere, bertako jauregia eta lorategia ongi aztertu eta baloratu ondoren, egokitzat jo da aipaturiko dorrea monumentu-multzo batean integratzea, gune osoari kohesio handiagoa emateko.

Sopuertako (Bizkaia) «La Puente» edo Balparda dorrea, Balparda jauregia eta bertako lorategia biltzen dituen multzoak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea Sopuertako (Bizkaia) «La Puente» edo Balparda dorrea, Balparda jauregia eta bertako lorategia biltzen dituen multzoa monumentu-multzo kategoriarekin Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari, I. eranskinean agertzen den mugaketarekin, II. eranskineko deskribapenarekin, eta III. eranskineko baimendutako esku hartzeen erregimenarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Sopuertako (Bizkaia) «La Puente» edo Balparda dorrea, Balparda jauregia eta bertako lorategia biltzen dituen multzoa monumentu-multzo kategoriarekin Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedientea jendaurrean jartzea 20 egunetan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Epe horretan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2035

RESOLUCIÓN de 23 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un período de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Torre de la Puente o Balparda, el Palacio Balparda y su jardín, sito en Sopuerta (Bizkaia).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Torre de la Puente o Balparda fue declarado Bien Cultural con la categoría de Monumento, mediante Orden de la Consejera de Cultura, de 14 de enero de 2002, BOPV n.º 25, de 5 de febrero.

No obstante, habiéndose analizado y valorado el palacio y su jardín, se ha considerado conveniente integrar la citada torre en un conjunto monumental para dar cohesión a este espacio.

Visto el interés cultural que presenta el conjunto formado por la Torre de la Puente o Balparda, el Palacio Balparda y su jardín, sito en Sopuerta (Bizkaia), atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Torre de la Puente o Balparda, el Palacio Balparda y su jardín, sito en Sopuerta (Bizkaia) conforme a la delimitación que figura en el anexo I, la descripción obrante en el anexo II, así como el régimen de las intervenciones permitidas, de acuerdo con el anexo III.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Torre de la Puente o Balparda, el Palacio Balparda y su jardín, sito en Sopuerta, para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de

alegazioak eta egoki iritzitako dokumentazioa aurkeztu ahal izango da, horixe xedatzen dute-eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluek. Espedientea Kultura Ondarearen Zentroan egongo da ikusgai (Donostia-San Sebastián kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpena interesdunei jakinaraztea, bai eta Sopuertako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ere, jakinarazpenaren egunetik harako hamabost eguneko epean egoki iritzitako dokumentuak eta frogagiriak alegatu eta aurkez ditzaten.

Laugarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 23a.

(Bertaratzea ezinezko izateagatik, Gurutz Larrañaga Zubizarreta, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea, otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren xedapen gehigarri lehenak xedatutakoarekin bat etorriz).

Kultura Ondarearen zuzendaria,
ARANTZA ARZAMENDI SESÉ.

esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Sopuerta y a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia, para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 2009.

(Por ausencia de Gurutz Larrañaga Zubizarreta, Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera del Decreto 25/2006, de 14 de febrero).

La Directora de Patrimonio Cultural,
ARANTZA ARZAMENDI SESÉ.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak honako hauek hartzen ditu: batetik, bi eraikinen partzelak, eta, bestetik, eraikinen inguruko eremuak; hau da, Balpardako jauregiaren lorategia eta lorategiaren urbanizazio-elementuak (II. eranskinean deskribatzen diren zuhaitz-multzoak, urmaela, lursailaren muga-hormatxoak, bidezidor nagusien trazak, kotxetegira heltzeko zorua, bai eta kotxetegia ere).

Horrenbestez, hauek dira mugaketa-eremuaren mugak. Ekialdean, partzelaren luzera-lerro osoa, 150 m luze ingurukoa, partzelaren horma altuak eta Balpardako jauregiak berak zein jauregiaren burdin hesiak osatua. Hegoaldean, hormatxo-atalek, zuhaixkek eta zuhaitz txikiek mugaturiko partzelaren muga. Mendebaldean, lerro gorabeheratsu bat, «la viña» deituriko eremua hartzen duena. Lerroa harrizko hormatxo baxu batek mugatzen du, lurraren topografia naturalarekin bat dator eta larrediaren amaieran dagoen aldapan hasten den jatorrizko haritz-basoaren mugaraino iristen da. Iparraldean, partzelaren ipar-muga eta haren landaredia; Carral 2 etxearen partzelarekin egiten du muga.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Proposatutako mugaketaren arrazoiak hauek dira: Balpardako dorrearen, Balpardako jauregiaren eta haren inguruko lorategi-eremuaren kultura- eta ingurumenbalioei eustea. Mugaketak hartutako eremua Sopuertako Mercadillo eta San Martín de Carral herri-guneen artean dago.

Lorategia mugatzeko eta zerrendaturiko multzoaren balioa agerian jartzeko, lorategi-eremuak hartzen duen partzela-zatia babestu behar da, paisaia-antolaketa mota horren izaera bereziari eusteko eta izaera horren balioa agerian jartzeko.

Horregatik, zehazturiko mugaketak, eraikinez gain, eraikinen inguruko eremua ere hartzen du. Eremu horretan daude, hain zuzen, lorategi-eremua eta haren perspektibak antolatzen dituzten zuhaitz-multzoak.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, las parcelas de los dos edificios, y por otro, el entorno que los rodea y que, en este caso, comprende el espacio del jardín del Palacio de Balparda con sus elementos de urbanización, a saber: las agrupaciones de árboles que se describen en el anexo II; el estanque; los muretes de borde de parcela; las trazas de los senderos principales; el pavimento de acceso a la cochera y la cochera.


Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al Este toda la longitud de la línea de parcela, de unos 150 metros de largo, constituida por la tapia alta de la parcela y el propio edificio del Palacio de Balparda con su verja; al Sur el límite de la parcela delimitado por los tramos de murete y la vegetación arbustiva y árboles de pequeño porte; al Oeste una línea ondulada que incluye la zona que llaman «la viña», y queda definida por un murete bajo de piedra que se adapta a la topografía natural del terreno hasta el encuentro con el bosque original de robles que al fondo de la pradera se eleva en pendiente; al Norte el límite norte de la parcela con su vegetación en el límite que linda con la parcela de la casa Carral 2.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores culturales y ambientales del conjunto de la Torre de la Puente o de Balparda, del Palacio de Balparda, y de su entorno ajardinado situado en una parcela entre los núcleos de Mercadillo y San Martín de Carral de Sopuerta.

La delimitación del jardín y puesta en valor del conjunto inventariado, implica la protección de la parte de parcela que define el ámbito del jardín, a fin de poder preservar y poner en valor el carácter propio de este tipo de ordenación paisajista.

Por ello, la delimitación establecida no incluye solamente la edificación propiamente dicha sino el área colindante sobre el que se asientan las agrupaciones arboladas que organizan el espacio del jardín y sus perspectivas.


haritza
bi enborduna
haritzez osatutako
basoa
zuhaitz multzoa
urmaela
iturria
Balparda
jauregia
putzua
zuhaitz multzoa
lur azpiko ur-bateratzea
landa
La Puente
dorrea
kotxe-gordelekua
zuhaitz multzoa
112.28
ESKALA / ESCALA
30 0 30 60 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
La Puente dorrea, Balparda jauregia eta jauregiaren lorategiak osatutako monumento multzoa.
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: SOPUERTA
Data / Fecha: 04/09/2007
Eskala / Escala: 1:1906

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Bi eraikinez eta eraikinen inguruan dagoen lorategieremu batez osaturiko multzoa da.

1.– Balpardako dorrea edo Balpardakoa (2002ko urtarrilaren 14ko Aginduaren araberako deskribapena).

Balpardako dorrea El Carral auzoko sarreran dago, Sopuertako udalerrian, gaur egungo errepideak estalita geratu den Balmaseda eta Castro Urdiales galtzadaren ondoan.

Gaur egun, bolumen kubikoa da gutxi gorabehera, baina hasiera batean, askoz ere baxuagoa izan zen. Etxeak hiru oin dauzka: beheko oina, bizilekutarako oina, eta azken horrek hainbat jasodura dauzkala-eta hirugarren oina osatzen duen ganbara bat ere badu. Lau isuriko teilatuz estalia dago.

Fatxadaren hainbat fabrika ikus daitezke, esku-hartze anitz izan dituela adierazle. Lehenengo bi oinak uniformeak dira eta harearrizko harlangaitza eta tuparria dute akaberan. XVII. mendean egin zitzaion zabalkundean, zabalkunde garrantzitsuenean, ia beste metro bat harlangaitz oso irregularra erantsi zioten, mortero oso buztintsua zuela. Harlanduak, hareharrizkoak eta ondo eskuairatuak, baoetako eskantzu eta uztaietan daude, eta bai saloiko leihoen horma-ataletan ere.

Behean, arku formako sarbidea egon zen, oraingo alde nagusian, baina haren dobelak atera egin zituzten berritu zutenean, haren ordez ateburu dobeladuneko pasabide bat instalatzeko. Oin horretako argiztapena osatzeko gezileiho bat dago, oso alboratua, hainbat argi-zulo eta hiru leiho.

Egoitzetarako oina izan zen berrituena XVII. mendean. Gaur egun, bederatzi leiho dauzka alboetako eta atzeko aldeetan eta fatxadarekin arras dauden bi balkoi aurreko aldean. Hasierako multzotik bi gezi-leiho alboratu mantentzen dira atzeko aldean, eta beste bat eskuinean, eta baita bi argi-zulo altu ere, batzuk bitxiak benetan: paldozko bost kanoi-zulo eta bi gezi-leiho.

Bao horien gainean dago lehenengo aparailu-aldaketa, hiru eraikuntzekin hazita dago-eta. Jatorriz saloirik gabeko dorrea zela dirudi eta, geroago, atalik altuena erantsi zitzaiola.. Jasodura horietatik lehenengoa ganbararen zabalkuntza da Kanpotik harburu-ilara batera heltzen da bozel laurdenean, eta horrek adierazten du une batean hori izan zela etxearen goiko muga. Gune horretan, argi-zulo zabal bat era bi kanoi-zulo berri daude.

Bigarren eranskinean, hormak estutu egiten dira. Ganbara saloi bihurtu zuten, zalantzarik gabe. Orduan irekitako baoak bi konopio eder dira, aurrealdea eta arkugainera bi baketoiez zeharkatua, barneratzeko oinarritxo baten gainean. Horien artetik pastasen da

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

Se trata de un conjunto constituido por dos edificios y un espacio de jardín que los comprende.

1.– Torre de la Puente o de Balparda (descripción según la Orden de 14 de enero de 2002).

La Torre de La Puente, también conocida como de Balparda, se alza a la entrada del barrio de El Carral, en el municipio de Sopuerta, al lado de la calzada Balmaseda-Castro Urdiales, a la que se superpone la actual carretera.

Hoy es un volumen aproximadamente cúbico, pero originalmente fue notablemente más baja. Consta de planta baja, piso residencial y varios levantes que conforman una tercera planta a modo de camarote cubierto a cuatro aguas.

En sus fachadas pueden apreciarse varias fábricas que delatan sucesivas intervenciones. Las dos primeras plantas son uniformes y se cierran con mampostería arenisca y caliza y cayuela. Una ampliación del siglo XVII, la más importante, añadió cerca de un metro más de mampuesto muy irregular y cementado con mortero muy arcilloso. Los sillares, areniscos y bien escuadrados, se reservan para los esquinales y cercos de los vanos, así como para el trozo de paño en el que se abren las ventanas del salón.

En el bajo existió un acceso de arco, en la actual cara principal, pero sus dovelas fueron arrancadas con motivo de la mencionada reforma, para instalar en su lugar un paso de dintel adovelado. Completan la iluminación de esta planta una saetera muy sesgada, varios luceros y tres ventanas.

El piso residencial fue el más renovado en el siglo XVII. Hoy se abre al exterior a través de nueve ventanas en las caras laterales y posterior y de dos balcones enrasados en la delantera. Del fenestraje original mantiene dos saeteras sesgadas en la cara posterior y otra en la derecha, así como los luceros altos, algunos de ellos de curiosa tipología: cinco troneras de orbe y palo y dos aspilleras.

Por encima de estos vanos se produce el primer cambio de aparejo debido a tres recrecimientos constructivos. La Puente sería en origen una torre sin salón a la que, tardíamente, se le añadió la parte más alta. El primero de estos levantes corresponde a una ampliación del camarote. Externamente llega hasta una hilada de canes en cuarto bocel, lo que indica que en cierto momento éste fue el límite superior de la casa. En esta zona se abren un amplio lucero y dos nuevas troneras.

El segundo recrecimiento viene definido por un estrechamiento de las paredes. Sin duda coincidió con la transformación del camarote en salón. Los vanos entonces abiertos son dos estupendos conopios deprimidos con rosca y extradós recorrido por dos baquetones so-

tetrafoliak dituen tutuerdia. Barlasaiek moldura konkaboa dute, lore eta pometarako. Alfiz konopialez inguratuta dago, baso poligonaleko mentsulen gainean, eta dena lore apaingarri gehiagorekin osatuz. Albanegetan, eskudete konopialak daude IHS anagrama dutenak, letra gotikoetan, eta behean, Alcedotarren armak. Hori guztia ondo eskuairatutako harlanduzko horma-atalean sartzen da. Leiho aipagarri horren gainean, beste harburu-ilara bat dago, teilatuaren hegala eutsiko zuena –alde honetan teilatua luzeagoa da eta— leihoa babestu ahal izateko.

Hirugarren jasodura, harlangaitzezkoa, XVII. mendean eraiki zuten. Orduan, berritu zuten baita barruko egitura ere: egoitzetarako oinak altuera galdu zuen, saloitik zorua jaitsita, eta behin betiko ganbara bihurtu zuten.

Balpardako dorrea estilo gotiko-errenazentistako eraikina da, XVI. mendean egindakoa. Jatorrian, saloirik gabeko dorrea izango zen, baina, hainbat obraren ondoren, benetako saloi eta guzti gelditu zen, bi leihoz argiztatutako saloia. Esan daiteke leiho horiek Bizkaiko dorreetan aurkitutakoen artean ikusgarrienetakoak direla. XVI. Mendeko lehenengo hamarkadetakoak dira.

2.– Balpardako jauregia.

Eraikin isolatua da, oinplano angeluzuzenekoa (14 x 17 m). Beheko solairua, bi solairu gehiago eta teilatupeko solairua ditu eta errepidearen ertzean dago. Eraikinaren alde laburretako batek –ekialdeko fatxada– muga egiten du errepidearekin.

Fatxada horretan, hiru bao-ardatz bertikal daude, eta erdian ate bat, nahiz eta hori sarrera nagusia ez izan.

Fatxada nagusiak lau bao-ardatz ditu eta iparraldera begira dago, lorategiaren iparraldeko atalera. Hain zuzen, atal hori ikusten da lehenbizi hirigunetik etortzean. 90 cm-ko lodierako karga-hormez eraikita dago, ia eraikinaren altuera osoan. Zenbait ataletan, harlandua erabili da.

Testura nabarmena du fatxada guztietan, eta nahita egin da horrela. Horretarako, mortero-emokadura erabili da, harlandu kuxindu nabarmenaren itxura duena. Elementu hori eklektizismoko zenbait eraikinetako fatxadetako elementu bereizgarria da.

Estalkia karel batek ezkutatzen du. Fatxaden goiko aldean, erremate perimetral batek jauregiaren inguru osoa hartzen du. Erremate hori hauek osatzen dute: erlaitz batek (toru erdiko 15 cm-ko inposta baten gainean) eta zuburuek (50 cm-ra).

Hutsarteak erregularki tartekatuta daude fatxada guztietan, Dinteldunak dira. Goiko solairuetan, balkoiak dira, kaxetan forraturiko soliberia-hegaden gainean, eta hormara ainguraturiko karelak dituzte, eskudelak eta galdaketazko babesak dituztenak. Teilatupeko solairuko hutsarteak etzanak dira, eraikin mota horretako goiko aldeetan erabiltzen direnen motakoak. Halaber,

bre basecillas de penetración, entre los que discurre una media caña con tetrafolias. Los alféizares se molduran en cóncavo, para nuevas flores y pomas. Van rodeados de alfices conopiales que descansan sobre ménsulas de vaso poligonales, todo con más decoración floral. En las albanegas se disponen escudetes de campo conopial para anagrama IHS en letras góticas y, debajo, armas de los Alcedo. Todo ello se engloba en un paño de sillería bien escuadrada. Por encima de este destacado ventanal discurre otra hilada de canes cuya misión sería sostener el vuelo del tejado, más prolongado en esta cara con el fin de proteger el ventanal.

El tercer levante, de mampuesto, se construyó en el siglo XVII. Entonces fue renovada también la estructura interior: la planta residencial perdió altura, haciendo descender el suelo del salón, definitivamente transformado en un camarote.

La Torre de la Puente es un edificio de estilo góticorenacentista, realizado en el siglo XVI. Tipológicamente, y en origen, sería una torre sin sala, pero tras varias obras, quedó dotada de un verdadero salón iluminado por dos ventanas que pueden calificarse como las más espectaculares de entre todas las encontradas en las torres vizcaínas, y que son, sin duda alguna, de las primeras décadas del siglo XVI.

2.– Palacio de Balparda.

Edificio exento de planta rectangular de 14x17 m, y planta baja más dos plantas altas y planta bajocubierta, dispuesto al borde de la carretera, con la cual linda en uno de los lados cortos –la fachada Este-.

Presenta, en esa fachada, tres ejes verticales de vanos, incluso una puerta centrada, que no es la principal.

La fachada principal consta de cuatro ejes de vanos con orientación Norte sobre el tramo norte del jardín, primero viniendo desde el núcleo urbano. La arquitectura está resuelta con muros de carga de grueso de unos 90 cms en casi toda su altura, incluyendo algunos tramos de sillería.

Presenta en todas las fachadas una textura voluntariamente acusada, mediante revoco de mortero que simula sillería almohadillada remarcada, característico de las fachadas de algunos edificios del eclecticismo.

La cubierta está oculta por un antepecho. Las fachadas se coronan con remate perimetral de todo el volumen que incluye cornisa sobre imposta en medio toro de 15 cms y canes a 50 cms.

Los huecos están regularmente espaciados en todas las fachadas. Son adintelados y en las plantas altas se manifiestan con balcones sobre vuelos de solivería forrada en cajones y con antepechos anclados a muro, incluyendo barandillas y protecciones de fundición. Los huecos de la planta bajocubierta son de forma apaisada, característicos de la coronación de este tipo de edificio.

hutsarte guztiek harlandua dute inguruan, fatxadaren testura orokorrean erabilitakoa baino lodiagoa. Elementu hori bereizgarria da XIX. mendearen amaierako bizitegi-eraikinetan.

Eraikinaren estalkiaren mendebaldeko erdia behera etorrita dago, gertu zituen bi zuhaitz handiren eraginez (egun moztuta daude). Atal horren barrualdea aurriegoeran dago.

Jauregiari lotuta, kotxetegiaren eraikin txikia dago. 10 x 5 m-ko oinplanoa du, gutxi gorabehera, eta errepidearen eta XVI. mendeko dorrearen ondoan dago. Hain zuzen, harriz zolaturiko galtzada batek bereizten ditu dorrea eta kotxetegia. Azken hori gurdia gordetzeko erabiltzen zen.

3.– Balpardako jauregiko lorategia.

Balpardako jauregiko lorategia zenbait zuhaitz-multzok eta zuhaitz horien arteko eremuek osatzen dute. Horien guztien bidez, jauregiaren eta dorrearen partzela antolatzen da. Lorategi paisajista da, landare-konposizio geometrikoetan oinarrituriko konposizio formalista baino gehiago, eta tamaina ertaineko zuhaitzek osatzen dute paisaia. Lorategi-mota horren helburua lotzen dituen hiru elementuak (zuhaixkak, zuhaitzak eta horien arteko eremuak) partzela batean integratzea da. Partzela horren baitan, lorategiak barne-perspektibak sortzen ditu, eta, batzuetan, perspektiba zabalagoak irekitzen dira.

Horretarako, Balpardako lorategian, jauregiko zuhaitz-multzoen antolaketan ezarritako ordenak partzela batean integratzen ditu eraikinak, zuhaitzak eta larredia. Partzela horretan, oraindik ere hauteman daitezke jauregitik alde batera eta bestera zein gora eta behera zihoazen bidezidorrak, lurraren orografia naturalari jarraiki, antolaketan zenbait aldaketatxo eraginda.

Lorategiko elementuek, nabarmendu beharrean, integrazioa dute helburu: iradoki egiten dute, erakarri, perspektiba irekien bidez, goitik itxi gabe. Besteak beste, hormatxodun landare-itxiturak daude, landareak, eta zuhaitz-multzoak, partzelaren alboko mugetan iparraldean eta hegoaldean. Iparraldeko mugan, landare-itxiturak zuhaitz-multzo bat du erdian. Ekialdeko mugan, errepidearen ondoan, zuhaitz baxuak daude: tamaina ertaineko hurritzak.

Antolaketan, elipse formako urmael bat dago, 15 x 5 m-koa. Partzelaren goiko erdialdean dago, XVI. mendeko dorrearen aurrean, 100 m ingurura, partzela bera ikusmenean duela. Ur-hornidurari dagokionez, zenbait hartune daude atzealdeko baso-eremuan. Halaber, iturri bat zegoen urmaelaren beheko aldearen parean (egun ez dago).

Todos los huecos incluyen también recercos de mayor grueso que el empleado en la textura general de la fachada, característicos de la tipología residencial propia de finales del siglo XIX.

El edificio ha sufrido el hundimiento de la mitad oeste de la cubierta favorecida por la proximidad de dos árboles de gran porte hoy talados. Presenta situación de ruina interior.

Vinculado al palacio se encuentra el pequeño edificio de la cochera de unos 10x5 metros de planta, ubicado junto a la carretera y junto a la torre del XVI, separada de ésta por una calzada enlosada en piedra. Servía para guardar el antiguo coche.

3.– Jardín del Palacio Balparda.

El jardín del palacio de Balparda es una ordenación de grupos de árboles y espacios entre ellos que ordenan la parcela del palacio y de la torre. Más que una composición formalista basada en composiciones geométricas vegetales, es un jardín de naturaleza paisajista en el que agrupaciones de árboles de porte medio enmarcan el paisaje. El objeto de este tipo de jardín es la integración de los tres elementos con los que interactúa, a saber, los arbustos, el arbolado, y el espacio entre ellos, dentro de una parcela en la que genera perspectivas internas y, a veces, se abre a perspectivas más amplias sobre el paisaje.

Para ello, en el caso que nos ocupa, la disposición de las agrupaciones de árboles del palacio establece un orden que integra a los edificos, el arbolado y la pradera, en una parcela en la que aún se aprecian los restos de los senderos que desde el palacio se extendían de un lado hacia otro y de abajo arriba en la parcela, discurriendo entre ligeros cambios voluntariamente establecidos por la ordenación sobre la sobre la orografía natural del terreno.

Los elementos del jardín, más que intervenciones de llamadas de atención lo que persiguen es una integración que juega con insinuar y con atraer mediante un tratamiento de perspectivas abiertas, sin cerramientos en altura, incluyendo cierres vegetales resueltos con muretes, vegetación y agrupaciones arboladas en los límites laterales de la parcela –al norte y al sur-: en el lindero Norte, el cierre vegetal incorpora en la zona central una agrupación arbolada. El límite Este, junto a la carretera, se resuelve con arbolado bajo a base de avellanos de porte medio.

En la ordenación se incluye un estanque de forma aproximadamente elíptica, de unos 15x5 metros, ubicado en la parte central alta de la parcela, en situación dominante sobre la misma, a unos 100 metros frente a la torre del XVI. La captación de agua se resuelve mediante tomas establecidas en la zona boscosa trasera. Así mismo, se disponía de una fuente al pie del estanque junto a su parte más baja, hoy desaparecida.

Partzela osoak zehar-drainadura du (hegoalde-iparralde), basotik sartuta larredia putzuz bete zezaketen urak irten zitezen.

Lorategiko zuhaitzak tamaina ertain-handikoak dira, espezie hauetakoak:

1) Magnoliaz eta ezkiez osaturiko multzo bat lorategiaren iparraldeko erdian, jauregiaren hegoaldeko fatxadaren aurrean, ur-putzu handi baten ondoan landatuta. Putzuak harlauza handi bat du gainean, mahai baten gisa. Multzo hori jauregiaren hondakinetik gertuen dagoen zatian dago, errepidearen ondoan dagoen burdin hesitik hegoalderantz, 40 m ingurura. Eremu horretan, jauregiaren ipar-mendebaldeko izkinan, bi zuhaitz konifero handiren motzondoak daude. Uste dugu eraikinaren estalkia hondatu zutelako moztu zituztela zuhaitz horiek.

2) Hiru zedrok eta izei batek osaturiko multzoa. Laurak oso handiak dira eta lorategiaren hegoaldean daude, XVI. mendeko dorrearen hegoaldeko fatxadaren aurrean. Halaber, eremu horretan, partzelaren hegoaldeko mugatik gertu, indigaztainondo arrunt bat dago, lore zurikoa eta tamaina ertain-handikoa.

3) Partzelaren iparraldeko eta hegoaldeko mugen alboetan zuhaixka- eta zuhaitz-lerro batzuk daude. Hain zuzen, haritzak, sahatsak, lizarrak, ereinotzak eta hurritzak daude, itxuraz ordenarik gabe kokatuta. Iparraldeko mugan, erdialdean, zuhaitz-multzo bat dago, tamaina handikoa, izei batek, Atlasko zedro batek eta bi motatako palmondoek osatua.

4) Bertako zuhaitzez –quercus robur– osaturiko multzo bat, partzelaren hondoan. Multzo horretan ixten da eraikinetatik ikus daitekeen perspektiba. Multzo horren iparraldean, enbor bikoitzeko haritz bat nabarmentzen da; haren ondoan, banku bat zegoen, esertzeko.

Toda la parcela dispone de un drenaje transversal sur-norte que da salida a las aguas que viniendo desde el bosque pudieran encharcar la pradera.

El jardín está constituido por los siguientes árboles, todos ellos de porte medio-grande:

1) Una agrupación de magnolios y tilos en la mitad norte del jardín, enfrente de la fachada sur del palacio, implantados junto a un pozo de agua cubierto con una gran losa de piedra a modo de mesa. Esta agrupación se ubica en la parte más cercana a las ruinas actuales del palacio a unos 40 metros hacia el sur desde la verja junto a la carretera.En esta zona, en la esquina noroeste del palacio, se manifiestan los tocones de dos ejemplares de coníferas de gran porte, taladas por considerar que ocasionaron la ruina de la cubierta del edificio.

2) Una agrupación constituida por tres cedros y un abeto, todos de gran porte en la parte sur del jardín, enfrente de la fachada sur de la torre del siglo XVI. Así mismo, en esta zona, en las proximidades del límite sur de la parcela, existe un castaño de indias de flores blancas, de porte medio-grande.

3) Unas alineaciones arbustivas y arboladas que definen los límites laterales Norte y Sur del ancho de la parcela. Se resuelven en aparente desorden con arbolado de robles, sauces, fresno, laurel y avellano. En el lindero norte, a media altura, se presenta una agrupación arbolada de gran porte a base de una picea, un cedro atlántica y dos tipos de palmeras.

4) Una agrupación de arbolado autóctono –quercus robur- al fondo de la parcela como cierre visual de las perspectivas desde los edificios y en el que destaca un ejemplar en la parte norte que dispone de doble tronco, junto al cual había un banco para sentarse.

III. ERANSKINA

BAIMENDUTAKO ESKU-HARTZEEN ERREGIMENA

1.– Multzoan –dorrearen eta jauregiaren eraikinetan eta lorategian–, oro har, Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 317/2002 Dekretuak araututako interbentzio-tipoen lehen azpi-multzoaren barruan C motako Zaharberritze Kontserbatzaileei dagokien birgaitze-interbentzioak baimenduko dira. Interbentzio-mota hori egin aurretik, jatorrizko eraikin-motaren eta antolaketaren azterketa dokumentala egin behar da, hura berrezartzeko.

Adierazitakoaz gain, aipaturiko 317/2002 Dekretuari jarraiki, zaharberritze zientifikoko interbentzioak egin beharko dira informazio filologikoaren arabera berreraiki behar diren XVI. mendeko dorrearen guneetan.

2.– Eraikuntza-interbentzio baimenduek helburu hauek izan behar dituzte: batetik, eraikinek eta lorategiak osaturiko multzoaren harmoniari eusteko aukera ematea, eta, bestetik, ondasunaren kontserbazioa bermatuko duten erabilera berriak eranstea. Erabilera berriek, multzoaren balioekin bat etortzeko, baldintza hauek bete behar dituzte:

– Balpardako dorrea kontsolidatzea: bolumena, estalkiaren tipologia, itxiturak, leihoen hutsarteak eta moldurak, eta barneko egitura. Jatorrizko materialak eta egitura-tipologia erabili behar dira.

– Balpardako jauregia zaharberritzea, haren jatorrizko tipologiari eta aprobetxamenduari jarraiki eta erabilera berrirako banaketa egokia zehazten dela. Horma perimetralen lodierari eutsi behar zaio; begiratokia berreskuratu behar da –nolanahi ere, hegadaren luzera errepidearen jabari publikora egokitu beharko da–; fatxadetako hutsarte guztiak tinkatu behar dira, balkoiak, karelak eta zureria barne, bai eta atzeko aldeko terrazak ere; eta estalkiaren jatorrizko tipologia berreskuratu beharko da. Eraikuntzako interbentzioetan, jatorrizko forjatuen kota zertxobait alda daiteke. Nolanahi ere, erlaitzaren eta leihoen kotei nahiz jatorrizko estalkiaren limen altuerari eutsi behar zaio.

– Lorategiko partzelarako interbentzioan, lorategiaren paisaia-izaerari eutsi behar zaio, II. eranskineko deskribapenari jarraiki. Hala eta guztiz ere, iparraldean, jauregiaren ondoan, harrera-eremu bat prestatu daiteke, fatxada nagusiaren aurrean, eta, horretarako, aldaketak egin daitezke burdin-hesian. Halaber, ekialdeko mugan, hegoaldean, kotxetegiaren eraikina berreskura daiteke, multzoaren berreskurapenarekin lotutako erabilera berri baterako. Era berean, errepidearekin muga eginez hego-ekialdeko muturrerantz hurbiltzen den partzelazatia berreskura daiteke, baldin eta eremu horretako koniferoen babes-eremu periferikoa errespetatzen bada –adaburuaren hedadura + 3 metro inguruan–. Halaber, muga horretan guztian, finkaren itxitura-horma egoki daiteke.

ANEXO III

RÉGIMEN DE INTERVENCIONES PERMITIDAS

1.– El tipo de intervención de rehabilitación autorizado para el conjunto –edificios de la torre y del palacio y el jardín-, será en general, el definido como Restauración Conservadora tipo C dentro del primer subgrupo de tipos definido en el Decreto 317/2002 sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado del Gobierno Vasco. Este tipo de intervención requiere de un análisis documental previo de los tipos edificatorios y de organización originales a fin de que se consiga un restablecimiento del mismo.

Con independencia de lo anterior, se deberán exigir intervenciones de Restauración Científica según el mencionado Decreto 317/2002 en los puntos de la torre del XVI que requieran reconstrucción filológica.

2.– Las intervenciones de construcción permitidas tendrán como fin, por un lado, posibilitar el mantenimiento de la armonía del conjunto edificado y ajardinado; y por otro, introducir nuevos usos que garanticen la conservación del bien. La reutilización compatible con los valores del conjunto deberá:

– Consolidar la Torre de la Puente: su volumen, la tipología de la cubierta, los cerramientos, los huecos de ventanas con sus molduras, y la estructura interior con el material y la tipología estructural originales.

– Restaurar el Palacio Balparda según su tipología y aprovechamiento original dentro del volumen original y en la distribución que sea adecuada al nuevo uso; con mantenimiento del grosor de los muros perimetrales; recuperación del mirador, en su caso adaptando la longitud del vuelo al dominio público de la carretera; consolidando todos los huecos de las fachadas, con sus balcones, antepechos y carpinterías; incluyendo las terrazas traseras y recuperando la tipología original de la cubierta. La intervención edificatoria podrá modificar ligeramente la cota de los forjados originales, siempre que se mantegan fijas las cotas de cornisa y de ventanas y las alturas de las limas de la cubierta original.

– La intervención sobre la parcela del jardín mantendrá el carácter paisajista del mismo descrito en el anexo II. Ello con independencia de que en la zona norte junto al palacio se pueda organizar un espacio de acogida frente a la fachada principal que incluya modificaciones de la verja, y de que en este mismo lindero Este, en su parte sur, se pueda reaprovechar para el nuevo uso vinculado a la recuperación del conjunto, el edificio de la cochera y la parte de la parcela que lindando con la carretera se acerca hacia el extremo sureste, siempre que se respete la zona periférica de protección a las coníferas de esa zona –amplitud de copa +3 metros alrededor-. Así mismo, se podrá adaptar la tapia de cierre de la finca en todo ese lindero.

– Debekatuta dago aipaturiko zuhaitzak suntsitzea, kaltetzea, markatzea edo babes zein laguntza fisiko gisa erabiltzea, bai eta zuhaitzengan kalterik eragin dezakeen edozein jarduerarik egitea ere.

4.– Ondasuna guztiz edo partzialki eraisteko, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluak eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuak (sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa) araututakoa bete beharko da.

– Queda prohibido destruir, dañar, marcar o utilizar como apoyo o soporte físico los árboles descritos, así como cualquier actividad que pueda influir negativamente sobre ellos.

3.– Únicamente podrá procederse al derribo total o parcial del bien de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos.